

BALOREZKO PROPOSAMENA

Iker Esnaola, Nora Lopez, Nora Garrido, Haizea Egizurain eta Olatz Mitxelenak, *Honni* taldea osatzen dugu. Gure ekintzailetasuna frogatuko duen proposamena, banbuzko metxeroa da. Denok ezagutzen ditugun metxeroak plastikoz eta gasez eratuta daude eta guk horiek banbuzkoengatik eta laser moduarekin ordezkatzeari lortuko dugu kutsadura pixkanaka amai dadin.

Gaur gaurkoz, kutsadura pil-pilean dagoen gaia da, COVID-19 egoerak argi utzi zigun konfinamenduan, egunerokoan sortzen dugun kutsadura murriztea beharrezkoa dela gure planetarentzat, bizia aurki dezagun planeta bakarrarentzat. Kutsadura jeitsi zen garai hartan, hainbat modutan eskertu zigun planetak. Beraz, erretzearekin kutsatzen duzuna nahikoa izango ez balitz, gure metxeroak erabilia Lurra zer edo zer lagunduko zenuke. Aurrekoa sakonduz, gure produktuak zein enpresak hurrengo balioak izango lituzke.



Gure produktuak **nobedadea** piztuko du, gure ideiaren inguruan oraindik ez dutelako horrelako produkturik asmatu edo saldu eta guk produktu hau hemen saldu eta ikusgarri bihurtuko bagenu, jende gehiagok eskuratzeko ahalmena edukiko luke eta beraz, erabateko nobedadea izango litzake, arreta guztia metxeroari bideratuz.

Gure metxeroak **pertsonalizatzeko** aukera ere egongo litzake, izan ere, metxeroaren alde batean bakoitzaren izena edo hitz bat jartzeko aukera eskaintzen dugu eta aurreko aldean irudiak egongo direnez, gustukoa edo nahi duzun irudia jartzeko aukera ere edukiko zenuke.

Balio kualitatiboari dagokionez, **diseinua** originaltasun handikoa da. Izan ere, alde batetik, banbuzkoa izanagatik ohiko metxeroekin desberdintzen da eta banbuak puntu exotiko bat ematen dio bezeroak erakarrit, horrekin batera gasez eratuta egon beharrean elektrikoa izango da ordezkaturik duena, puntu formalago bat emanez. Beste alde batetik, gure logoak diseinuari beste puntu bat ematen dio, planeta zaintzearen inguruko erle baten marrazki baten bidez. Azkenik, pertsonalizazioaren bidez, guztiak desberdindu daitezke eta horrela bakoitzak bere metxero propioa eduki dezake.

Azkenik, **eskuragarritasunari** dagokionean, gure metxeroak eskuratzeko bi modu egongo dira: batetik, denda fisikoetan egongo dira eskuragarri (supermerkatuak, estankoa...), bestetik, mugikorren bitartez eskatu (online bidez) beharko lirakete eta bertatik gustuko diseinua eskatu. Guk horrela zuen gustuko metxeroa sortuko genizueke guregana etortzeko beharra eduki gabe. Gainera, behin metxeroa sortuta, guk eramango genizueke eskatzen diguzuen etxe-bizitza edo lokalera.